

**2008ko ekaina****Power Food****Liburuxkaren testua**

Power Food, hona Miralda-FoodCultura taldeak asmatutako proiektuaren izenburu energetikoa, janariaren eta elikaduraren kulturari buruzko ikuspegi berezia eskaintzen duena. Orain bi urte hasi zen lanean FoodCultura taldea, artista buru zela, janariaren irudi poetiko eta boteretsu hori esparru antropologiko unibertsalean mamitzeko. Janaria, energia, medikuntza, erritmoak, tradizioa, sinesmenak eta herri kultura elkartzen dituen lotura-sare bat proposatzen du erakusketak. Bestalde, oinarritzko behar horrek kontrolarekin, marketingarekin eta boterearen irudikapenarekin dituen harremanak aztertzen ditu. Hau da, gure kulturaren, ekonomiaren eta gizarte-harremanen erabile nagusienetako baten ikuspegia eskaintzen du.

Janaria oinarritzko beharren artean dago, eta horrekin batera, edaria, jantzia, sexua, maitasuna edota talde baten kide izatearen sena proiektu honetan aztertu diren objektuen eta kontzeptuen jatorrian daude. Kolore biziak, herri-estetika *kitch*-a eta objektua gizarte-harremanen nahiz osasunaren arrakastarekin lotzen dituzten sedukzio kodeen erabilera dira erakusketa honen ezaugarriak.

Batere ohikoa ez den ikuspuntu batetik, hiru esparrutan egituratutako ibilbide bat proposatzen zaigu.

Lehendabizikoan, janariak medikuntzarekin, tradizioarekin, erritmoekin, sinesmenekin eta orainarekin dituen harremanak aztertzen dira. Armadilloaren haragiarekin loturiko botere afrodisiakoa gaur egunera arte iritsi da *viagra* moduan. Aztietatik eta herri-medikuntzaren errezetatetatik gaur egungo bizkorgarrietara, egindako bidea oso esanguratsua da ekoizkinen aurkezpenari dagokionez, baina, inguratzen dituzten konfiantza, jakitea eta mesfidantza betidanikoak dira. Atal horretan botere magikoak, medikuntza naturala eta droga eta botiken dohainak ezagutuko ditugu Euskadiko etxe-sendagaien, txinatar kulturako suge eta onddoen, *energy drink* direlakoen edota kirolaren munduko dopagaien bidez.

Gure mendietako sendabelarrez osatutako arku baten azpitik igaroko gara bigarren eremura. Hor janariaren eta gure herri kulturaren eta elikaduraren inguruan sortutako ikonografiaren arteko loturak aztertzen dira. Elikagai, edabe eta ur miragarrien kontsumoaren lehena eta oraina. Jekill doktorea eta Hide jauna sorginekin eta Popeyeren espinakekin batera daude. Bide batez, daukaten burdin kopuruaren inguruko huts tipografiko bat dela eta, mito bihurtu ziren haurren elikadura kontuetan. Gaur egungo kulturaren ohitura, irudikapen eta usteen paradigma dira guztiak. Eremu horretan proiektzioak, kartelak, errezetak eta publizitate esloganak daude, eta baita formalki barruan daukatenaren ahalmena irudikatzen dituzten ontziak ere: erlijiozko irudiak eta giza irudiak dituzten botila eta ontziak; zakil itxurako likore ontziak, eta abar, elikagaiak zuzenean kontzeptu bihurturik.

Azken esparruan janariaren, ekonomiaren eta boterearen irudikapenaren arteko harremanak aztertzen dira. Gizarte prestigioak eta estatusak begien bistako isladapena dute elikaduran. Dietak, janarien kaloria-ekarpena eta elikadura-piramidea aztertzearekin batera, boterearen, kontsumoaren eta objektuetan hori irudikatzeko moduaren inguruan gogoeta egiten da. Eliz-kalizatik hasi eta diamante-potoraino. Gune horretan, irudi batean boterea eta energia lotzen dituzten bala-potoak daude. Debeku zeinua daramaten zazpi mahairen gainean dokumentazioa egongo da, eta baita gizarte nahiz erlijiozko arrazoiak direla eta janariaren inguruan ezarri izan diren debekuen inguruko gogoetarako materialak ere.

Edari energetikoen munduarekiko begirada ironiko berberarekin eta estetika bera erabiliz, Miralda-FoodCulturak gasdun ura daukaten poto sorta bat ekoitzi du. Benetako edari energetikoen eran bizitzeko energia-iturri gisa aurkeztutako ura.

Miralda-FoodCultura taldeak ikonografiarekiko, ohiturekiko eta herri-sinesmenekiko duen erakarpina erakusten du proiektuak anbiguotasunik gabe, eta hizkera hurbil batekin aztertzen eta deskodetzen ditu. Kontzeptuzko ikuspuntu batetik, berriz, ironiaz, errespetuz eta liluramenez aurkezten du janariaren, kulturaren, energiaren eta boterearen artean sortutako zirkulari.